

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak aurrera egiteko, taldekide bakoitzak bere aldetuk esfortzu jandia jarri dugu. Norberak bere abileziak atera eta proiektuari aurrera ekin diogu.

Gure proiektuak aurrera egin dezan, garrantzitsuena jendea konbenzitzea eta produktu hau baliagarria dela ikustea uste dugu. Horretarako sare sozialak izugarri erabiliko ditugu eta bezeroak konbenzituko ditugu. Astero albisteak, argazkiak eta iruzkinak aterako ditugu jendea jakinaren gainean egon dadin.

Anderrek euskarriaren muntaia egingo du, oso abila baita material simple batzuekin muntai desberdinak egiten. Gainera, empresa desberdinetatik prezio lagungarri batean lortuko ditu piezak etekin handiagoak edukitzeko. Honetaz gain oso abila da piezak elkartzen eta denbora etekin ona ateratzen du.

Iñaki bezeroekiko harremanetan ibiliko da, web guneak oso ondo erabiltzen ditu. Astero albiste berriak eta argazkiak txertatuko ditu eta bezeroak interesa jarri dezaten saiatuko da. Gehienbat erabiliko dituen sare sozialak, facebook, instagram edo twitter izango dira, hauek, gazteek gaur egun asko erabiltzen dituztelako. Bertara gure produktu apartaren hainbat argazki igoko ditu, Ainarak ateratakoak, argazkilari aparta baita. Uxuek eta Anderrek modelo lana egingo dute, honela, jendeak gure tresna nolakoa den eta nola erabil dezakegun ikusiko du.

Uxuek diseinu berriak egingo ditu. Produktuak arrakasta eduki ahala diseinuak hobetzen joango dira eta bezeroak eskatzen dituzten diseinuak egiten saiatuko da. Horrertako gure web gunean iritziak eta iruzkinak jartzeko eskatuko diegu, baita galderaren bat badute ere guk erantzuteko.

Ainarak taldea zuzenduko du. Ideia berriak aterako ditu eta lanak
organizatuko ditu. Argazkiak ere aterako ditu eta Iñakiri pasako dizkio
web gunean jarri ditzan.

Ondorioz, norberak bere abileziak edukitzeaz eta erabiltzeaz gain,
garrantzitsuena publizitatea da, produktua berria denez jendea
konbenzitzea eta baliagarria dela ikustea.